



Kalera, Palestinaren alde

Herritar talde batek deituta, Palestinaren aldeko manifestazioan parte hartu dute lasarteoriarrek / 4

TXINTXARRI

Kontzientzia hartuz jarduteko

Ate joka dugu Azaroaren 25a, eta horren harira, ekintzez betetako egitaraua iragarri du udalak / 2

Teknologiak euskaraz hitz egin dezan, herritarrak ahotsa ematera deitu dituzte udalak eta Ttakun KEK / 3

Haur eta gaztetxoan irakurzaletasuna sustatzeko jarduerak antolatu ditu Udak Liburutegiak / 5

Musika eta zinema emanaldi ugari programatu dituzte azaroko kultur agendan / 6

Euskaltzaleak bildu eta saretuko ditu Euskal Jaiak bihar, hilak 11; dena prest dute antolatzaileek / 7

Sasoi bikaina egiten ari da Ohorezko Erregional mailako Ostadar SKT; sei partida irabazi ditu / 10

Behobia-Donostia lasterketan 167 lasarteoriarrek parte hartuko dute igandean hilak 12 / 11

BLACK FRIDAY

2mó 89€
lehen 99€

erreflexuen aurkako
betaurreko graduatuak

R.P.S. 91/20



Kontsultatu optikan kanpainaren ezaugarriak.


MULTIÓPTICAS

943 37 74 55
Kale Nagusia, 15. LASARTE-ORIA



eskatu hitzordua
WhatsApp bidez

www.multiopticas.com



Indarkeria matxistaren aurka borrokatzeko jarduera sorta

Azaroaren 25aren atarian, askotariko adineko herritarrentzako ekintzaz beteriko egitaraua aurkeztu du Lasarte-Oriako Udalak; horietako zenbait, herriko eragile batzuekin elkarlanean antolatu dituzte. Erakusketa, mahai-ingurua, elkarretaratzea, autodefentsa feminista tailerra eta bakarrizketa izango dira iragarritako ekimenetako batzuk.

Txintxarri

Jarduera ugari iragarri ditu Lasarte-Oriako Udalak hilaren 25eko Emakumeen Aurkako Indarkeriaren Kontrako Egunaren harira. Horren berri eman dute udal ordezkariak, prentsaurrean, eta, nabarmendu, herritarrek "kontzientzia hartzea" dela helburuetako bat. Hilaren 13an izango da lehen ekimena, eta abenduaren 1era arteko iraupena izango du. Udaleko Gizarte Zerbitzuen departamentuko buru Lourdes Acevedo, sail horretako teknikari Sonia Zubizarreta, Berdintasun teknikari Irati Olaetxea, Agustín Valdivia alkatea eta Emakumeen Zentroko teknikari Maite Iglesias arduratu dira Hilaren 25erako prestatutako jarduera sortaren nondik norakoak emateaz. Valdiviak azpimarratu du emakumeen aurkako indarkeria gaitzaren aurka borrokatu behar dela, eta, horretarako, ezinbestekoa dela herritarrek elkarrekin jardutea.

ASTELEHENA 13

LASARTE-ORIA Erakusketa

Ni naiz naizena erakusketa zabalduko dute. Trans pertsonen testigantzak jasoko dituzte bisitariak, abenduaren 1era arte izango dute herritarrek hori bisitatzeko aukera.

Kultur etxeko kafetegia, 09:30etik 13:00etara eta 16:00etatik 20:30era.



Udal ordezkariak Sexuen Elkarbizitzarako Emakumeen Zentroaren atarian, Azaroaren 25eko jarduerak aurkeztu ostean. TXINTXARRI

ASTEAZKENA 15

LASARTE-ORIA Bideoforuma

Bideoforuma egingo dute zaharren egoitzan.

Biyak Bat zaharren egoitza, 16:30ean.

OSTEGUNA 16

LASARTE-ORIA Mahai ingurua

Lodifobia eta elikadura nahasmenduak mahai ingurua aurrera eramango dute. Idoia Garcesak egingo du moderatzaile lana, eta honako hauek izango

dira hizlariak: Yolanda Iglesias ACABE Gipuzkoa elkarteko koordinatzaile eta psikologoa; Mijo Lizaraburu, militante transfeminista eta filosofoa; eta, Maddi Etxeberria, nutricionista.
Mercero aretoa, 18:30ean.

OSTIRALA 17

LASARTE-ORIA Zinema

Zineforuma antolatu dute, Okendo Zinema Taldearekin elkarlanean; *O Corno* proiektatuko dute.
Kultur etxea, 20:00etan.

ASTEARTEA 21

LASARTE-ORIA Saio literarioa

Lurraz beste saio literarioa aurrera eramango dute, Garazi Arrula idazlearekin eta Aintzane Usandizaga moderatzailearekin. Irakurle Txokoarekin elkarlanean antolatutako jarduera da.

Kultur etxea, 20:00etan.

ASTEAZKENA 22

LASARTE-ORIA Ipuin kontaketa

Berdintasunean irakurketarekin jolastuz haurrentzako ipuin kontaketa

saioa aurrera eramango dute. 6 eta 8 urte arteko haurrentzat. Lekuak mugatuak dira, hortaz, aurrez izena ematea ezinbestekoa da. Kultura departamentuarekin elkarlanean antolatutako jarduera da.

Kultur etxea, 17:00etan.

OSTEGUNA 23

LASARTE-ORIA Sari banaketa

Beldur Barik lehiaketako sari banaketa aurrera eramango dute. *Sexuen Elkarbizitzarako Emakumeen Zentroa, 17:00etan.*

LARUNBATA 25

LASARTE-ORIA Mobilizazioa

Honako jarduerak deitu dituzte Emakumeenganako Indarkeriaren Aurkako Egunaren harira:

09:00etatik 13:00etara, autodefentsa feminista tailerra, Emagin elkartearen eskutik. Emakume gazteei zuzenduta dago eta bertan parte hartzeko aurrez izena ematea ezinbestekoa dela ohartarazi dute antolatzaileek. Kultur etxeko dantza aretoan aurrera eramango dute. Amaitutakoan, *Brunch-a* tailerrean parte hartu dutenentzat.

12:00etan, elkarretaratzea Okendo plazan.

Kultur etxea eta Okendo plaza, 09:00etatik aurrera.

ASTEARTEA 28

LASARTE-ORIA Bakarrizketa

Magma Mia bakarrizkata erakutsiko du Beatriz Egizabal umoregileak. Bertaratu nahi dutenek gonbidapena eskuratu beharko dute; bakarria banatuko da pertsona bakoitzeko.

Kultur etxea, 09:00etatik aurrera.

Ixtear da Beldur Barik lehiaketara lanak aurkezteko epea

Aurtengo lehiaketan parte hartu nahi duten gazte lasarteoritarrek ikus-entzunezko lana egin eta horiek bidali beharko dituzte; azaroaren 11 izango da horretarako azken eguna.

Antolatzaileek jakinarazi dutenez lan horiek ezingo dute 3 minutu baino luzeagoak izan, eta euskaraz, gaztelaniaz edo bi hizkuntza horietan egin ditzakete. Hori bai, bakarrean aurkezten dutenek, azpiztituluak izan behar dituztela ohartarazi dute (euskarazko lanek gaztelaniazko

azpiztituluak, eta gaztelaniazkoek, berriz, euskarazkoak).

Partaideak adinka banatuko dituzte antolatzaileek, hiru kategoriatan: 12 eta 13 urte artekoa, 14 eta 18 urte artekoa eta 19 eta 20 urte artekoa, eta banaka zein taldeka aurkez daitezke lanak. Kategoría bakoitzean garaile izango den lanaren egileek 200 euro jasoko dituzte. Sari banaketa ekitaldia azaroaren 23an egingo du udalak, ostegunarekin, 17:00etan, Sexuen Elkarbizitzarako Emakumeen Zentroan.



Artxiboko irudi honetan ageri dira iazko Beldur Barik lehiaketako saritu eta parte hartzaileak. Hilaren 23an egingo dute aurtengo sari banaketa. TXINTXARRI

Ahotsa ematera deitu dituzte herritarrak

Teknologiari euskaraz irakasteko proiektua da GAITU, eta helburu hori lortzeko, lasarteoriatarrei ahotsa emateko deia egin diete ekimena aurkeztu duten eragileek. Datozen egunetan banatuko du udalak, etxez etxe, dinamika azaltzen duen eskuorria

Txintxarri

Lasarte-Oriako Udaleko Euskara Batzordeko lehendakari Jon Antxordokik eta Ttakun Kultur Elkartearen lehendakari Mari Karmen Ormazabalek GAITU proiektua aurkeztu dute, eta hori herrian zabaltzeko asmoen berri ere eman dute; ondoan izan dituzte euskalgintzako beste hainbat erakundetako ordezkariak, besteak beste, herriko ikastetxe guztietako irakasle eta guraso elkarte zein euskaltegiak. Hizkuntza batek bizirauteko teknologia berrietara ere egokitu behar duela azaldu dute, eta, ohartarazi, bide horretan herritarrek egin dezaketen ekarpena handia dela.

Gure egunerokoan, gero eta arruntagoa da teknologiarekin ahotsa erabiliz komunikatzea, baita ahotsaren bidez gailuei aginduak ematea ere; hainbat etxetan daude jada Alexa, Cortana edo Google-ren laguntzailea (Google Assistant) bezalako gailuak; mugikorrek edo autoekin ere ahots bidez komunikatzen gara. Kontua, ordea, zera da, teknologia hori garatzen duten enpresa handiek hizkuntza nagusiak bakarrik kontuan hartzen dituztela, euskara kanpo utziz. Eta hain zuzen ere, hori iraultzera dator GAITU.

Proiektua aurrera eramateko, hau da, makinek hizkuntza bat



Mercero gunean egin dute GAITU proiektuaren aurkezpena. TXINTXARRI

ikas dezaten, aldiz, ahots asko behar dira, eta Common Voice proiektuak, ahots grabaketa sorta erraldoia biltzea ahalbidetuko du; edonori eta edozein hizkuntzatan (euskara barne), ahotsa erabiltzen duten gailuak modu azkar eta erraz batean trebatzeko aukera emango dio. "Erronka polita dugu esku artean oraingoan: euskaldunok euskaldunontzat egina, gaur-biharko euskaldun guztiontzat onuragarria, publikoa, irekia, irabazi asmorik gabeta eta kolaboratiboa", gaineratu dute ordezkariak.

Hortaz, euren ahotsa eman nahi dutenek, erraz egin dezakete hori edozein ordenagailu, sakelako telefono edo tablet-etik. www.gaitu.eus web atarian sartu behar dute, eta "hitze egin" botoia sakatu. Webguneak esaldi bat eskainiko die irakurtzeko, hori esan, eta botoi berarekin grabazioa amaituko dute. Lehenengoa egin ostean, beste esaldi bat eskainiko die, eta, horrela, bost grabatu arte; horiek guztiak egindakoan, ondo grabatuta dauden entzutea komeni da, eta hala bada, "bidali" botoia sakatu beharko dute amaitzeko.



NEURE KABUZ
MAITANE REBE

Lasarte-Oria

Gurasoek betidanik erakutsi didate gure herriarekin eta gure tradizioekin lotura izatea garrantzizkoa dela, eta horrek herriko hainbat elkarte eta eragileren parte izatera eraman nau.

Onartu beharra daukat ez dudala lotura handirik kirolarekin, baina aita korrikalaria izan da gaztetatik. Orain dela urtebete Lasarte-Oria Bai! Herriko Krosa zela eta, aita omendu zuten. Eta nik ere nire hondar aletxoak jartzeko aukera izan nuen. Aitari aurrez aurre aureskua dantzatzea, eta bere 1 zenbakidun dortsala soinean korrika egitea oso berezia izan zen.

Amak berriz, euskal tradizioarekiko dudan eta dugun harremana erakutsi dit. Umetatik ama izan da egunez egun ispiluaren aurrean nire oinak eta eskuak mugitzen dantzarazi didana, eta gaur egun, biok elkarrekin jarraitzen dugu euskal dantzari txikiak plazaratzen. Ez nuen aitona ezagutzeko aukerarik izan, baina etxeko apaletan dauden liburuetan askotan izan dut bera ezagutzeko aukera. Aitona Sorgin Dantzako dantzari izan zen, eta egun hain errotua dagoen dantza honetako partaide izatea ere berezia da.

Txiki-txikitatik geldi ez egotea izan da nire izana, eta horrek nire aisialdiko denbora herriko talde desberdineei eskaintzera bultzatu nau. Kasu batzuetan ere, bertako langile izatea suertatu zait, eta benetan pozgarria dela herriarentzat lan egitea. Ttakun Kultur Elkarte, Erketz Dantza Taldea, Alboka Txiki Abesbatza, Udala Musika Eskola, Kukuka Antzerki eta Dantza Eskola, Santa Ana, Santo Tomas, Euskal Inauteriak, Oaintxe In Deu txaranga... izan dira urte luzez nire bidelagun.

Lasarteoriatarra izateaz harro nago, eta baita herriak herriarentzat egiten duenaz ere. Beti pentsatu ohi izan dut oso herri "aktiboa" dela gure herria, eta bidean milaka oztopo aurkitzen ditugun arren, horren gainetik aurrera jarraitzeko indarra dugula. Eta oztopoak aipatzen ditudanean, Lasarte-Oriako Udalez hitz egiten ari naiz.

Lehenik eta behin, gaizki ulerturik egon ez dadin, idatzi hau nik idatzi dudala eta nire izenean ari naizela argitu nahi dut, eta ez aurretik aipatzen diren pertsonen zein elkarten izenean.

Udalaren jarrera amorragarria, ulergaitza eta lotsagarria dela pentsatu dut beti. Herriak herriarentzat zer edo zer antolatuta nahi dugun momentuan, gogo eta indar guztiak izan arren, udalarekin topo egitean hesiak besterik ez ditugu aurkitzen. Benetan nekagarria dela Lasarte-Oriako udalarekin lan egiten saiatzea, elkarrekin lan egin beharrean, zentzurik gabeko gerra batean sartzen baikara.

Baina entzun, lasarteoriatarrok borrokan jarraitzeko indarra dugu, eta guzti honen gainetik, aurrera egiten jarraituko dugu.

SALGAI:



Ttakuneko bulegoan eta sarean
labur.eus/aterkiak



10€
aterki 1

16€
2 aterki



aterkiak

Euskararen aterpe!!

txintxarri

Sarraskia arbuiatzen jarraitzen dute, kalean

Lasarteoriatarrek manifestazioa egin dute, beste behin, Palestinaren askatasuna eskatzeko. Okendo plazatik abiatu eta herriko kaleetan barrera egin dute bidean, eta etenik gabe egin dute aldarri. Komunikatu bat irakurri dute amaieran

Txintxarri

Herritar talde batek Palestinaren aldeko mobilizazioa aurrera eram du. Okendo plazan batu dira, eta *Palestinako sarraskia gelditu* lelopean, manifestazioa egin dute herrian barrena.

Deitzaileek nabarmendu dute herrialde horretako egoera "oso larria, jasanezina" dela, eta, azpimarratu, dagoeneko, Israelak 8.000 hildakoren langa gainditu duela Gazako eremuan; horien arte asko adin txikikoak direla ere ohartarazi dute, eta gogorarazi, Israel ospitale eta eskolak etengabe bonbardatzen ari dela: "Hori onartezina da".

Horrez gain, Gazan bizitzeko ezinbestekoak diren produktuak (ura, elikagaiak, sendagaiak edota erregaiak) sartzea eragozten duen blokeoaz ere mintzatu dira. Ospitalerik ez erabiltzeko hornidura elektrikoaren mozketa, edo egiten ari diren basakeriak estaltzeko eginiko telekomunikazioen mozketa ere ahotan izan dituzte.

Gertatzen ari den horren guztiaren aurrean nazioarteko komunitate erakusten ari den axolagabekeria lotsagarria dela ere azpimarratu dute, eta NBEko errelatore bereziak esandako hitzak ere ekarri dituzte agerraldira: "Gazako herritarrei egoten ari direna genozidiotik oso hurbil



Herirtarrak, Palestinaren askatasuna aldarrikatzeko manifestazioan. TXINTXARRI

dago. Ura eta argindarra etetea gizateriaren aurkako krimena da".

Zenbait eskera

Hitzetatik ekintzetara igarotzeko unea dela nabarmenduz, honako eskaera hauen egin dituzte: Israelgo gobernuari bat-bateko eta baldintzarik gabeko su etena exijitzea. Euren tropak Gazako inguruko lurretatik aldentzea eta blokeoarekin amaitzea; Israelekin harreman diplomatiko, politiko, militar, komertzial, ekonomiko eta kulturalak etetea; Israelgo

estatura bideratzen diren armak enbargatzea; Gerra krimen eta gizateriaren aurkako krimenengatik epaituak izan daitezkeen Israelgo estatua eta bertako agintariak nazioarteko justizia gortera eramatea; Gizarte mailan, Israelen aurkako boikot, zigor eta desinbertsio kanpainak sustatzea, eta espresuki Euskal Herriko enpresek estatu israeldarrarekin dituzten harreman ekonomiko eta komertzialak bertan behera uztea; eta, Israelak nazioarteko bankuetan dituen funtsak berehala izoztea.

Neure Gain kanpaina martxan jarri du GuraSOS elkarteak

Gipuzkoako Ingurumen diputatu Jose Ignacio Asensioren aurkako akusazioarekin jarraitzeko, dirua behar du eragileak

Txintxarri

Herritarren laguntza behar du GuraSOS elkarteak, Gipuzkoako Ingurumen diputatu Jose Ignacio Asensioren akusazioa aurrera eram ahal izateko. "Herri akusazio gisa aurkezteko tramiteak

egin ditugu eta orain fidantza bat eskatuko digu epaitegiak", azaldu dute kideek.

Horretarako, ordea, eragileak ezin ditu bere kontuak erabili, Asensiok berak enbargatuta dutilako, "beste auzi batzuetako

kostuak pagatu ez izanagatik". Horren aurrean, Neure Gain ize-neko kanpaina abiatu du: bonoak atera ditu, norbanakoek zein taldeek bete eta ekarpen ekonomikoak egin ditzaten. "Eskatzen dugun datuetako bat helbide elektronikoa da; horren bitartez herritarrekin harremanetan jarri eta diru sarrera zein kontutan egin behar duten zehazten diegu". Laguntza "funtsezkoa" da: "Arrain potoloek ezin dutelako ihes egin, ingurumena eta osasunaren defentsa zure esku!".



Ekimenari atxikimendua eman dioten herritarrek talde argazkia atera dute. TXINTXARRI

Konponbidearen atea zabaltzeko giltzak nahi dituzte

duGiltzak dinamikaren berri eman du Lasarte-Oriako SAREk, eta horri atxikimendua adierazi diotenen talde argazkia atera

Txintxarri

Giltzek atea irekitzeko eta ixteko balio dute; etxea, autoa, kutxa, giltzarrapoa, kaiola edota espetxeak zabaltzeko erabil daitezke horiek. Hala nabarmendu du Lasarte-Oriako SAREk, asteburuan Giltzak dinamika ezagutarazteko egin duen agerraldian.

Adierazi dute inoren sufrimendua ahaztu edo gutxietsi gabe, "iraganeke minak, gorrotoa eta indarkeriak" atzean uzteko atea itxi egin behar direla, orain artekoari begiratu ahal izateko: "Akatsetatik ikasiz, ez errepikatzeke, norgehiagokak giltzapetu eta iraganean ainguratzen gaituzten lehiak ixteko".

Hala, azpimarratu dute aurrea urrats sendoak eman ahala, atea zarratu eta zabalduz ari direla bidea egiten, baina kamio horretan, pauso berriak emateko, ordea, beharrezko ikusten dute "iraganean betikotzen dituzten atea" itxi eta euskal preso, iheslari eta deportatuen aferari ir-

tenbidea ematea. Gauzak horrela, nabarmendu dute oraindik ezin dutela iraganaren atea behin betiko itxi, besteak beste, oraindik, euskal presoek eskubideek urratuak izaten jarraitzen dutelako.

Motza eraginez gizartearen motorra piztu eta aurrera egiteko bidean jarraitu "nahi eta behar" dutela gaineratu dute: "Konponbidearen eta elkarbizitzaren atea pare pare zabaltzeko nahi ditugu, eta horretarako, presoek etxerako atea zabaltzeko duten giltzak eskuartean hartu behar ditugu". Ohartarazi dute ez direla zigorgabetasuna eskatzen ari, baizik eta zigorrak betetzeko legeak eskaintzen dituen aukerei atea irekitzeaz. Amaitzeko, adierazi dute prest daudela konponbiderako, elkarbizitzarako biktima guztien minen errespeturako eta presoek etxerako biderako atea irekiko dituzten giltzak euren eskuetan hartzeko.

Greba feminista orokorraz ariko dira Gaztelekuan

Buruntzaldeko Itaiak asanblada bat aurrera eramango du bihar, hilak 11, Gaztelekuan, 11:00etan. Hilaren 30eko greba feminista orokorra izango dute hizpide partaideek, helburu hauekin: egun seinalatu horretan Itaiak defendatuko dituen aldarrien berri eman eta hausnarketarako bidea irekitzea. Horien artean daude guztiek kalitateko lan eta

bizi baldintza berdina izatea eta lan sexualarekin zein lan horien hierarkizazioarekin amaitzea. Jomuga horiek lortzeko "ezinbestekoa" da, alde batetik, aitortzarik gabeko zaintza eta hainbat lan feminizatu emakumearen ardura eta zama izatetik guztiena izatera igarotzea; eta, bestetik, "instituzioen fartsatik at" antolatzea, horiek emakumearen emantzipazio erreala bat sustatzeko dituzten mugak kontuan izanda.

Itaiako kideek herritarrak deitu dituzte parte hartzera.



Artxiboko irudi honetan, herriko gaztetxoak Kontu Kantoi taldearen saio batean, kultur etxeko hitzaldi aretoan. TXINTXARRI

Ekimenez betetako udazkena, liburutegian

Haur eta gaztetxoaren artean irakurzaletasuna bultzatzeko asmoz, 3 eta 12 urte bitartekoentzako eskaintza zabala egin du Udal Liburutegiak; ipuin kontaketa saioak aurrera eramango dituzte, baita sormen tailerrak ere. Abendura arte luzatuko da egitaraua

Txintxarri

Abendura bitarte hainbat ekimen antolatu ditu Udal Liburutegiak. Hauek dira iragarri dituen jarduerak:

Hilaren 13tik 16ra, Galtzagorri elkartearen *Hizki Hazka* areto literarioa aurrera eramango dute. Alfabetoa izango da aretoan protagonista nagusia, eta Intza Alkain herri-tarrak dinamizatuko du saioa. Sasoeta eta Landaberri ikas-tetxeetako Lehen Hezkuntzako 1. eta 2. mailako ikasleek parte hartuko dute bertan, hala iragarri dute antolatzaileek.

Egun batzuk geroago, hilaren 22an, aldiz, asteazkenarekin, 17:00etatik 17:45era *Berdintasunean irakurketarekin jolas-tuz* ipuin kontaketa saioa izango da Mari Garcia Laderorekin. 6 eta 8 urte arteko haurrei zuzenduta dagoen saioa

da. Jarduera hau Emakumeenganako Indarkeriaren Aurkako Egunaren harira udalak iragarritako egitarauaren barruan ere aurkeztu dute.

Urte amaierara arte

Abenduaren 13an, asteazkenarekin, 17:00etatik 18:00etara Irakurketa kluba aurrera eramango dute. Hori ere Mari Garcia Laderok dinamizatuko du, baina, oraingoan, 3 eta 5 urte bitarteko haurrentzat eta haien gurasoentzat izango da saioa. Haurrentzako Euskal Literatura abiapuntu harturik, dinamizatzaile prestatu batek zuzendutako irakurketa saioetan parte hartzeko aukera izango dute bertaratzen direnek.

Saio horien guztien helburua "bikoitza" dela nabarmendu dute antolatzaileek. Alde batetik, "gozatzeko une bat" sor-

tu nahi dute ipuin, kantu, olerki eta hitz jolasekin, heldu eta haurrek ondo pasa dezaten. Bestetik, "gurasoen prestakuntza" sustatu nahi dute, eta horretarako, haurrentzako euskal literaturako baliabideak erakutsiko dituzte, eta kontatzeko moduak azalduko: "Azken batean, helduak seme-alabekin literatura modu autonomoan lantzeko gai senti daitezen nahi dugu". Jarduera guztietan lekuak mugatuak direla ohartarazi dute, eta, interesdunek izen ematea liburutegian bertan egin behar dutela.

SAIOEK "HELURU BIKOITZA" DUTE: GOZARAZTEA ETA GURASOEN PRESTAKUNTZA

EDUKI BABESTUA



Elaia eta Alazne Fadrique ahizpek ireki dute Kairos taberna-kafetegia. TXINTXARRI

Kairos taberna-kafetegia, goxotasunaren itsasargia

Kalbario bideko 1. zenbakian badago ere, Kairos Lasarte taberna-kafetegia ez da sufritu edo gaizki pasatzeko toki bat, guztiz kontrako baizik. Goxotasunaren itsasargia da: familiar, lagunartean, bikotearekin edota bakarrik gosari edo merienda eder batez gozatzeko txokoa. Lemazainak, Fadrique ahizpak, Elaia eta Alazne, beraien etxera joaten den edonor mimoz eta gertutasunez artatzeko prest. Asteartetik ostiralera, 08:00etatik 14:30era eta 17:00etatik 20:00etara artekoa da ordutegia; larunbatetan, 08:00etatik 15:00etara eta 17:00etatik 20:00etara; eta, igandetan, 09:00etatik 15:00etara. Igande arratsaldetan eta astelehenetan itxi egiten dute.

Kairos hitza grekeratik dator eta "une egokiena" esan nahi du, zerbait garrantzitsua gertatzen den momentua. Horrelako zerbait bizitu nahi dutenek aukera paregabea dute Kairosen. Lokalera sartze hutsarekin narbituko dute bezeroek Elaia eta Alaznek egiten dutenaren esentzia: goxotasuna eta gertutasuna. Horregatik, ez da kasualitatea taberna-kafetegiari izen hori jarri izana. Eta beste guztia ere ez: eskuartean duten proiektuaren detaile guztiak ezin hobeto zainduta daude.

Dena, etxean egindakoa

Kairosen bizitako uneak garrantzitsu bilakatzen dituzte, besteak beste, kartako jaki eta edariak. "Den-dena etxean egiten dugu", azpimarratu dute jabeek. Tartak, tostadak edo-

ta kafeak dira gutzietako batzuk. Aukera begetariano, begano eta glutenik gabekoak ere badituzte. "Bezeroak gurekin hitz egitera animatzen ditugu, galdetzerara, behar dutenaren arabera ia karta osoa moldatu dezakegu".

"Duela urte asko" hasi ziren proiektuan pentsatzen, eta pixkanaka-pixkanaka errealitate bihurtu dute euren ametsa. Irailaren 26an zabaldu zuten Kairos eta "oso pozik" daude izandako harrerarekin, "adin tarte guztietako lasarteoriarrak" ez ezik, inguruko herri ugaritakoak (Usurbil, Errenteria, Irun, eta abar) ere joaten direlako. Ilusioa eta lanerako gogorik ez zaie falta, eta ideia berritzaileak ere ez, egitasmo asko baitituzte buruan. Abendura hasi besterik ez da egin.



Kairos Lasarte jarrai ezazu Instagramen!





Perigallo Teatro taldeak 'Cabezas de cartel' antzezlaren emanaldia egin zuen hilaren 4an. TXINTXARRI

Musika eta zinema emanaldi ugari azaroan

Hilabete honetako kultur agendaren berri eman du Lasarte-Oriako Udalak. Sasibil Lirika Elkartearen 'Una noche en el teatro de la ópera' kontzertua, 'Anbotoko Mari' antzezlana eta 'El osito Boom' nahiz 'Sound of freedom' pelikulak izango dira hurrengo hitzorduak

Txintxarri

Zinema proiektzioak eta musika emanaldiak izaten ari dira nagusi urteko azken aurreko hilabeteetan. Horiez gain, Lasarte-Oriako Udalak beste zenbait jarduera programatu ditu, hala nola, Zurmailu elkartearen erakusketa edota *Berdintasunean liburuekin jolasean* ipuin kontaketa saioa.

Asteburu honetan makina bat hitzordu izango dituzte aukeran herritarrek. Gaur bertan, hilak 10, 20:00etan, *Una noche en el teatro de la ópera* kontzertua emango du Sasibil Lirika Elkarteak, kultur etxean. Sarrerek 6 euro balio dute. Bihar, berriz, familian joateko plan bat proposatu du udalak, Logela Multimedia taldearen *Anbotoko*

Mari antzezlana. 17:00etan hasiko da ikuskizuna, kultur etxean. 4 euro ordaindu behar ko ditu ikus-entzule bakoitzak. Azkenik, *El osito Boom* eta *Sound of freedom* pelikulak proiektatu dituzte kultur etxean, haurrentzat eta helduentzat hurrenez hurren, 17:00etan eta 19:30ean. Sarrerek 4 eta 6 euro balio dituzte.

JSE-EGAZ taldeari buruzko erakusketa zabaldu dute

Froilan Elespe Herriko Etxean dago ikusgai esposizioa hilaren 20ra arte; astegunetan joan daitezke herritarrak

Txintxarri

Lasarte-Oriako PSE-EEK jakinarazi duenez, JSE-EGAZ Euskadiko Ezkerraren Gazteak talde politikoak 120 urte bete ditu aurtan, eta, ospatzeko, erakusketa bat ireki dute Froilan Elespe

Herriko Etxean. Tomas Meabek eragile hori fundatu zuenetik gaur egunera arteko jarduna bildu dute esposizio horretan. Hilaren 20ra arte egongo da zabalik.

Astelehenetik ostiralera ikusi ahaliko dute herritarrek erakus-

keta, 11:00etatik 13:30era edota 17:00etatik 19:00etara. Sarrera doakoa da.

Hitzaldi irekia

Bestalde, herriko alderdi sozialistak hiri hondakinen bilketa eta birziklapenari buruzko hitzaldi ireki bat egingo du hilaren 15ean, asteazkenez, Herriko Etxean, 18:00etan. Edukiontzien erabilera eta zaborrari buruzko Lasarte-Oriako ordenantzak landuko dituzte, besteak beste.

Hitzordu nabarmen batzuk



'ANBOTOKO MARI' EMANALDIA
HILAK 11, 17:00ETAN

Familiako kide guztientzako planetako bat da Logela Multimedia taldearen *Anbotoko Mari* antzezlana, 3 eta 10 urte arteko umeentzat bereziki. Ikuskizun horren emanaldia bihar egingo dute, hilak 11, kultur etxean, 17:00etatik aurrera. Sarrerek 4 euro balio dute. Lan horrek antzerkia, musika, bideoa eta gauza gehiago uztartzen ditu.



XX. AKORDEOI JAIALDIA
HILAK 18, 19:00ETAN

Urtero legez, akordeoian oinarritutako jaialdia antolatatu du Zero Sette Akordeoi Orkestrak. Hogeigarren aldia izango da aurtengoa eta beti bezala punta-puntako gonbidatuak ekarriko dituzte kultur etxera hilaren 18an, 19:00etan. Sarrerek 6 euro balio dute.



'COME AGAIN' KONTZERTUA
HILAK 17, 19:45EAN

Zaria Koru Eskolako kideek XVIII. Musika Topaketetan parte hartuko dute, *Come again* izeneko musika emanaldia aurrera eramanda. Ama Brigitarren komentuan izango da kontzertua, hilaren 17an, 19:45etik aurrera. Sarrera doakoa da. Danok Kide elkarteak eta udalak antolatatu dute jarduera.



ZURMAILUREN ERAKUSKETA
HILAK 17-26, 12:00-20:00

Zurmailu elkarteko ikasleek egurrarekin landutako lanak erakutsiko dituzte Antonio Mercero gunean, hilaren 17tik 26ra. 18:00etatik 20:00etara zabalduko dute esposizioa astegunetan, eta, asteburuetan berriz, 12:00etatik 14:00etara. Sarrera doakoa dela jakinarazi dute eragile horretako kideek.



Erakusketako panel bat. PSE-EE

Udazken Kulturean parte hartuko du Alboka Abesbatzak

Donostiako Alde Zaharreko San Vicente elizan abestuko du Alboka Abesbatzak bihar, hilak 11, 20:30ean. Udazken Kulturean antolatatu du Gipuzkoako Errioxako Etxeak; horren barrukoa da aipatu emanaldia. Herriko koruak adierazi du "egitarau anitza" prestatu duela eta Amaia Dorronso piano jotzailea lagun izango duela pieza batzuetan.

Dena prest dute Euskal Jaiaz gozatzeko

Herriko euskaltzaleak bildu eta saretuko ditu Ttakun Kultur Elkartek, Lasarte-Oriako Udaleko Euskara Zerbitzuak eta herriko zenbait eragilek elkarlanean prestatu duten festak. 10:15ean hasiko da, Okendo plazan, herriko txistularien taldearen dianarekin

Txintxarri

Baserritar jantzi eta egun eder batez gozatzeko abagunea izango dute herritarrek bihar, hilak 11. Herriko euskaltzaleak (eta animatzen den edonor) bildu eta saretzeko asmoz, egitarau oparoa prestatu du Ttakun Kultur Elkartek, herriko zenbait eragilerekin elkarlanean eta Lasarte-Oriako Udaleko Euskara Zerbitzuaren laguntzarekin. Euskararen erabilera eta euskaltzaletasuna sustatzeaz harago, aipatu elkarte eta erakundeek abian dituzten zenbait egitasmo (Plaza Dantza, Solaskide, jantzi tradizionalen ikastaroa...) eza-gutaraztea da ekimenaren helburua. Aurtengo festa azaroan izango bada ere, antolatzaileek zehaztu dute "salbuespena" izatea espero dutela, eta datozen urteetan urriko hirugarren asteburuan antolatzea.

Egitarau osoa arrosa koloreko zatiduran kontsulta dezakezue. Goizeko eta arratsaldeko jardue-



Oaintxe in deul txarangak girotuko du arratsaldeko poteoa. TXINTXARRI

ren artean, indarrak hartzeko, herri bazkaria egiteko asmoa dute, Okendo plazan, 14:00etan. Aurrez izena ematea beharrezkoa dela nabarmendu dute antolatzaileek, bide hauetakoren bat erabilia: 695 78 53 89 edo 943-37

14 48 telefono zenbakiak edota kultura@ttakun.eus helbide elektronikoa. 3 euroren truke lekua gordeko diete herritarrei eta edaria (ura, sagardoa eta ardoa) eman. Jatekoa norberak eraman beharko du.

Egitarau oparoa prestatu dute

Ohi bezala, antolatzaileek jardueraz betetako programa antolatu dute, egun osorako. Herritarrek horietan parte hartzea animatu dituzte.

- **10:15ean, Okendo plaza eta inguruetan barrena**, diana egingo du herriko txistularien taldeak.
- **10:15etik 13:00etara, Okendon**, herrikoak diren artisauek eta ekoizleen produktuen azoka aurrera eramango dute. Ttakun Kultur Elkarteen egitasmoen postuak ere jarriko dituzte. Euskararen erabilera bermatuta egongo dela azpimarratu dute antolatzaileek.
- **12:00etan, Okendon**, Plaza Dantza egitasmoak lagunak muxiko eta euskal dantzen saioa egingo dute.
- **13:00etan, Okendotik irtenda**, Ttiriki Ttarraka eskolako trikitilariak kalejira egingo dute.
- **14:00etan, Okendon**, herri bazkaria egiteko asmoa dute. Parte hartu nahi dutenek 3 euro ordaindu beharko dituztela lekua erreserbatu eta edaria izateko (ura, sagardoa edota ardoa).
- **17:00etan, Jalgi kafe antzokian**, jantzi tradizionalen buruzko saio bat egingo dute.
- **17:30ean, Jalgin**, bakarrizketa saio bat egingo du Bea Egizabal clownak.
- **18:30ean, Jalgitik abiatuta**, Oaintxe in deul! txarangak girotutako poteoa.

Biharko beste ekimen nabarmenetako bat izango da gure herriko bertako ekoizleen azoka. Haien produktuak erakutsiko dituzte dozena bat artisauk, Okendon, 10:15etik 13:00etara arte; Ttakun KEk bere egitasmoen postuak ere jarriko ditu. Antolatzaileek azpimarratu dute euskararen erabilera bermatuta egongo dela salerosketa harremanak izaterako orduan. Eguraldi txarra egiten badu, bihar goizean bertan erabakiko dute feria Okendon mantendu

ala Oriarte Landaberri ikastetxera lekualdatu.

Amaitzeko, antolatutako ekimenez gozatzera animatu dituzte lasarteoriatarrek, eta, jakina, baserritar jantzita azal-tzera ere bai.

HERRI BAZKARIAN LEKUA ETA EDARIA IZATEKO 3 EURO ORDAINDU BEHAR DITUZTE PARTAIDEEK

Herritar ugari izan dira Bilbon

Euskalgintzaren Kontseiluaren deia erantzunda, makina bat herritar joan ziren Bilbora hilaren 4an, *Oldarraldiaren aurka, euskararekin bat, euskaraz bat* lelopean egindako manifestaziora, horietako batzuk Borobileen elkarteak antolatutako autobusean. Kideek azpimarratu dute "eraso guztien aurrean" euskaraz bizi nahi dutela; hori aldarrikatu zuten.



BOROBILEAN ELKARTEA



Margotu Azaroa urteko hamaikagarren hilabetea da, kuien eta ondoen garaia. Goian idatzita dago, baina kolore apur bat merezi du, ezta? Bada, eman iezaiozu!

HIZKI-MARRAZKI ALFABETOA

A	B	D	E	F	G	H	I	J	K	L	M	N
O	P	R	S	T	U	V	W	X	Y	Z	.	,

ALdea dago Aurki itzazu bi irudien arteko hamar aldeak.



Mezu gordea

Eman marrazkitxo bakoitzari bere hizkia eta esaera zahar bat agertuko zaizu. Erabili alboko hizki-marrazki alfabetoa.

<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>
<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>
<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>




Handienetik txikienera



Ordenatu jertse hauek handienetik txikienera. Eman handienari 1 zenbakia, eta txikienerari 9.

Gauza bera da...

Zer diote gure lagunek? Hitz bana falta zaie, ezta? Begiratu bakoitzak ondoan duen taulari eta zoaz laukiz lauki, hizkiak batuz, geziek agintzen dizuten moduan. Bi kasuetan, nabarmenduta dagoen koadrotxoa duzu abiapuntua. Jakin ezazu azaroari deitzeko moduz ari direla biak.




Z	I	A	F	O	R
O	E	M	E	K	U
R	O	S	E	N	I
I	P	U	R	U	D
O	R	E	O	I	K
N	O	A	U	H	A

H	U	N	Z	I
I	A	G	E	T
T	Z	I	Z	U
Z	P	I	K	A
A	N	T	L	A



Itzala

Lotu hosto bakoitzari bere itzala



Ohorezko Erregionalak, hiru puntu gehiago eskuan

Ostadar SKTko Ohorezko Erregionalak Elgoibar 3-0 garaitu du. Leire Garcianen taldeak neurketa bakarria galdu du liga hasieran eta sailkapeneko lehen bien (Mariño eta Antiguoko) antzera, hemezortzi puntu ditu. Postua mantentzeko borrokatuko du

Txintxarri

Ostadarreko Ohorezko Erregionalak ederki hasi du Liga, jokatu dituen jardunaldietatik bakarra galdu du. Hilaren 4an, Elgoibar izan zuen aurkari eta etxeko taldeak ez zuen hutsik egin; 3-0 gailendu zen.

Elgoibar mailan talde berria izanik, Ostadarrek aurreko jardunaldietako emaitzekin bakarrik egin zion aurre neurketari. Leire Garcia prestatzaileak azaldu modura, "gol dezente sartzen zitezela ikusi genuen eta guretzako indartsuak diren ekipoen aurka puntuak lortzetik zetozen".

Horregatik taldearen ohiko jokoa egitea izan zen etxeko taldearen planteamendua: "Baloia jokatu eta, aurrean presio ona eginez, baloiak berreskuratu eta kontraeraso azkarrak antolatzea".

Neurketa hasiera lehia handikoa izan zen. Elgoibartarrek intentsitatea markatu nahi izan zuten, baina urdin-beltzek ez zuten arazorik izan euren jokoa egiteko. Defentsan ere sendo egon zen taldea. Ondorioz, jokalari polit batekin ireki zuen Ostadarrek markagailua.

Atsedendiaren ostean, bi taldeek arriskua sortu zuten ateen

aurrean. Ostadarreko atezainak ez zion Elgoibarra baloia sarera sartzeko aukerarik eman; etxeko taldeak, aldiz, ongi baliatu zituen bi jokaldi partida bereganatzeko. Kórner batean buruz baloia gurutzatu eta bigarren gola egin zuen Ostadarrek. Aldaratz batean etorri zen hirugarrena. Elgoibartarrek ez zuen bere areatik baloia ateratzerik izan eta hainbat saiakeraren ostean, urdin-beltzek baloia sarera bidali zuten.

Ostadarreko entrenatzaile Garcia pozarren dago taldeak aurten duen dinamikarekin eta iaizko urtea trantsizio urtea izan zela

Remiro proiektua, Lasarte-Orian

Texas Lasartearra CF-k antolatuta, *Gurasotasun positiboa eta ongizate emozionala kirolean* izeneko formakuntza eskainiko da Lasarte-Orian. Saioak hiru egunetan - azaroak 20an eta 27an eta abenduak 4an - izango dira 18:00etan, Antonio Mercero gureko hitzaldi aretoan. Izena ematea ondoan duzuen QRaren bitartez egin behar da. Alex Remiro Realeko atezainak eta Futbol Mas Fundazioak sortutako proiektuaren ekimena da formakuntza hori; helburua futboleko prestakuntza garaian ongizate emozionala lantzen laguntzea da.



Ostadarreko jokalaria baloiarekin. TXINTXARRI

azaldu du: "Jende berri asko sartu zen taldean. Aurten denok ezagutzen gara, oso giro polita sortu da, entrenamenduetan serioasuna eta kanpoan giro aparta ikusten da".

Hurrengo jardunaldian Zumaia izango dute aurrez aurre eta neurketa gogorra espero duten arren, hiru puntuak eskuratzeko lanean ari direla aipatu du Garcia. Aurten helburua bosgarren postutik gora geratzeko bazuten ere, emaitzak ikusita lehen hiru postuetan egoteko borrokatuko dutela onartu du prestatzaileak.

ASTEBURUKO HITZORDUAK

FUTBOLA

OHOREZKO ERREGIONALA

Zumaia FT - Ostadar SKT
Larunbata. 17:45. Aita Mari, Zumaian.

GORENGOEN MAILA

Ostadar SKT - Vasconia CD
Larunbata. 15:30. Michelin kirol gunean.

ERREGIONALEN I. MAILA

Usurbil FT B - Ostadar SKT
Larunbata. 16:30. Harane, Usurbilen.
Euskalduna A. SD B - Texas Lasartearra CF

Larunbata. 18:30. Ubitarte, Andoainen.

OHOREZKO JUBENILA

Real Union Club SAD - Ostadar SKT
Larunbata. 17:30. Gal, Irunen.

JUBENILEN I. MAILA

Ostadar SKT B - Dunboa Eguzki CD
Larunbata. 13:15. Michelin kirol gunean.
Texas Lasartearra CF - Urnieta CD B

Igandea. 11:20. Michelin kirol gunean.
Euskalduna A. SD B - Ostadar SKT C

Igandea. 11:30. Ubitarte, Andoainen.

OHOREZKO KADETEA

Ostadar SKT - Real Sociedad SAD B

Larunbata. 11:30. Michelin kirol gunean.

KADETEEN I. MAILA

Ostadar SKT B - Euskalduna A. SD B
Larunbata. 09:45. Michelin kirol gunean.
Usurbil FT - Ostadar SKT (neskak)

Larunbata. 12:00. Harane, Usurbilen.

Arrupe Chaminade CDDF C - Ostadar SKT C
Igandea. 09:00. Felix Marin, Donostian.
Billabona KE B - Texas Lasartearra CF
Igandea. 16:00. Arratzain, Villabonan.

INFANTIL TX., TXAPELDUNEN FASEA

Ostadar SKT - Anaitasuna CD
Igandea. 09:45. Michelin kirol gunean.

INFANTILEN I. MAILA

Billabona FKE - Ostadar SKT
Larunbata. 12:30. Arratzain, Villabonan.
Tolosa CF - Texas Lasartearra CF

Igandea. 10:00. Arizti Handi, Lazkaon.

ARETO FUTBOLA

I. MAILA

Idiazabal BaiReformas - Eguzki AF

Ostirala. 22:30. Zelaa kirol., Idiazabalen.

III. MAILA

Eguzki ISU Leihoak - DAD Kutxa
Ostirala. 20:50. Maialen Chourraut kirol.

GAZTEEN MAILA

Eguzki B. Ayesa - Goierrri KE
Larunbata. 11:00. Maialen Chourraut kirol.

KADETE MAILA

Erain - Eguzki G. Goxua
Larunbata. 11:45. Tecnun, Donostian.

INFANTIL MAILA

Eguzki Bar Escalerillas - Eskoriatza KE
Larunbata. 09:30. Maialen Chourraut kirol.

SASKIBALOIA

I. MAILA

Ostadar SKT - Tecnun

Larunbata. 18:00. Maialen Chourraut kirol.

III. MAILA

Ostadar SKT - Andraitz KE 2
Larunbata. 16:00. Maialen Chourraut kirol.

JUNIOR ERRENDIMENDU ZILARRA

Hemen Garbiketak Eskoriatza KE - Ostadar SKT

Igandea. 17:00. Manuel Muñoz kirol., Eskoriatza.

KADETE ERRENDIMENDU URREA

Easo Basket Iruleta - Ostadar SKT
Larunbata. 18:00. Bidebieta kirol., Donostian.

KADETE PARTAIDETZA

Ostadar SKT - CD Internacional
Igandea. 09:30. Michelin kirol gunean.

INFANTIL ERRENDIMENDU URREA

Ostadar SKT - ZAST Lynx
Larunbata. 14:00. Maialen Chourraut kirol.

BOLEIBOLA

EUSKAL LIGA

UDAPA Jatorkide Senior - Ostadar SKT

Larunbata. 18:30. Aranalde, Gasteizen.

EUSKAL LIGA, II. MAILA

Ostadar SKT - Galdakao BT
Igandea. 11:30. Maialen Chourraut kirol.

JUBENIL-SENIOR MAILA

Ostadar SKT - Vendetta M. (S)
Larunbata. 13:00. Maialen Chourraut kirol.
Ostadar SKT (S) - Ttanta Oarso

Igandea. 09:30. Maialen Chourraut kirol.

KADETE MAILA

Hernani KE 3 - Ostadar SKT
Larunbata. 12:00. Hernani kiroldegian.

INFANTIL MAILA

Ostadar SKT A - Mayumi

Larunbata. 13:00. Maialen Chourraut kirol.
Ipar Titanak - Ostadar SKT B

Larunbata. 13:00. Mons kirol., Donostian.

IGERIKETA

NEGUKO LIGA

Buruntzaldea IKTKo infantil, junior eta absolutu mailako igerilariak Neguko Ligako bigarren jardunaldiari egingo diote aurre.

Larunbata. 16:00. Hernani kiroldegian.

PILOTA

ESKUZ BANAKA, 3. SENIORRA
Intza KE - Abantzu

Larunbata. 11:15. (1. partida) Michelin pil.

ESKUZ BANAKA, 1. INFANTILA

Intza KE (Jauregi) - Tolosa
Larunbata. 16:00. (1. partida) Michelin pil.

ESKUZ BANAKA, 2. INFANTILA

Intza KE (Lasa) - Añorga
Larunbata. 16:00. (1. partida) Michelin pil.
Intza KE (Maiz) - Oiarpe

Larunbata. 16:00. (2. partida) Michelin pil.

Intza KE (Iparragirre) - Hernani

Larunbata. 16:00. (3. partida) Michelin pil.

ESKUZ BANAKA, 3. INFANTILA

Intza KE (Lizarraga) - Alde Zaharra
Ostirala. 19:00. (1. partida) Loidibarren pil.

ESKUZ BANAKA, 1. ALEBINA

Mundarro - Intza KE (Garmendia)
Ostirala. 18:00. Udaleko pil., Astigarragan.

GOMAZKO PALA, 3. SENIORRA

Intza KE - Beotibar 4

Ostirala. 19:00. (2. partida) Loidibarren pil.

JUDO

ESPAINIAKO TXAPELKETA

LOKEko Asier Sagasti eta Haritz Urdangarín judokak absolutu mailako Espainiako Txapelketako iparraldeko sailkapenean parte hartuko dute.
Larunbata. 16:30. Monzalbarba, Zaragozan.

ERRUGBIA

EUSKAL LIGA, II. MAILA

Gesalaga Okelan Zarautz Beltzak - Bera Bera RT B
Larunbata. 17:30. Michelin kirol gunean.

18 URTEZ AZPIKOAK

Zarautz Beltzak RT - Gaztedi RT
Larunbata. 10:00. Asti, Zarautzen.

16 URTEZ AZPIKOAK

Zarautz Beltzak RT - Gaztedi RT
Larunbata. 11:45. Asti, Zarautzen.

LASTERKETA

BEHOBIA- DONOSTIA

Hernani 167 komikalarik Behobia-Donostia lasterketan parte hartuko dute.
Igandea. 09:30. Behobia, Irun.

XAKEA

GIPUZKOAKO TXAPELKETA

Juan Rodriguez eta Taulako kide Jose Ignacio Echeberria herritarrek Superbeterano mailako Gipuzkoako txapelketako azken jardunaldia jokatu dute.
Igandea. 10:30. Erreterian.

Krosean, pistan eta errepidean lehian

Lasarte-Oriako zein Ostadar SKTko kirolariak Donostiako Nazioarteko krosean nahiz 20 urtez azpiko Kluben Espainiako txapelketan izan dira lehian. Hilaren 12an, aldiz, 167 herritarrek parte hartuko dute 58. Behobia-Donostia lasterketan

Txintxarri

Lokatza eta euria protagonista izango zirela zirudien arren, hilaren 5ean eguraldiak atsedean eman zien Donostiako Nazioarteko krosean parte hartu zuten korrikalarietara. Lasarte-Oriako ordezkariak hainbat probetan parte hartu zuten.

Zumeatarra taldeko Aimar Sukuntza herritarrek proba nagusia lehiatu eta nazioarteko atleten artean korrika egin zuten. 31.33ko marka eginez, sailkapen nagusiko 39. postuan iritsi zen helmugara; 23 urtez azpiko mailan, aldiz, zortzigarren izan zen.

Unax Goenaga Super Amara BAT taldeko herritarrek 20 urtez azpiko mailako lehian egin zuten lasterka eta bere mailako 11. postua (16.11) eskuratu zuten.

Ostadar SKTko atletismo eskolako infantil, alebin eta benjamin mailako gaztetxoek ere euren onena eman zuten Hipodromoko pistan.

Espainiako txapelketan lehian

Urriko azken asteburuan, aldiz, 20 urtez azpiko klubak Espainiako txapelketa jokatu zuten. Ostadar SKTko Alex Alkain eta Aiala Ramos gazteek Bidasoa Atletiko Taldearekin bat egin zuten hitzorduari aurre egiteko.

Alkainek Madrileran egin zuten bidaia A Finaleko luzera jauzi



Sukuntza, Goenaga eta benjamin mailako atletak, proba egiten. GAF/MARIA EUGI

proban parte hartzeko eta bere aletxoak jarri zuten taldea zortzigarren sailkatzeko. Ostadarreko kideak zazpigarren postua eskuratu zuten 5,77 metroko jauziarekin.

Ramosek, aldiz, Durangon txapelketako B finala lehiatu zuen. BAT jardunaldiko garailea izan zen eta Espainiako bederatzigarren postua eskuratu zuen. Horren erantzuleetako bat izan zen talde urdin-beltzeko kidea. Ramosek lan ederra egin zuen eta xabalina jaurtiketako irabazle izan zen 29,40 m. markarekin.

Behobia-Donostia

Bestalde, errepideko korrikalariak gorriz markatutako hitzor-

du garrantzitsua iritsi da. Hilaren 12an, 58. Behobia-Donostia jokatu da.

29.639 lasterkari eta patinatzailek eman dute izena proba ezagunean eta Lasarte-Oriak aurtan 167 ordezkari izango ditu Behobiako irteera puntuan.

09:30ean gurgildun aulkian eta *handbike*-an doazen parte hartzaileek emango diote hasiera lasterketari. Bost minutu geroago patinatzaileen txanda izango da eta 10:00ak aldera aterako dira lehen korrikalariak. Guztiek Irungo auzotik Donostiarainoko 20 kilometroak egin eta Boulevardeko helmuga igarotzea dute helburu.

Infantilek, hutsik ez lehen faseko azken neurketan

Infantil partaidetzako Ostadar taldeak ez du neurketarik galdu txapelketan; 63-15 irabazi du bosgarren jardunaldian

Txintxarri

Infantil partaidetza mailako taldeek lehenengo faseko azken neurketa jokatu zuten hilabete-ko lehen asteburuan Maialen Chourraut kiroldegian. Bi garaipen eta porrot bat jasan zituzten.

Ostadar taldeak Aldapeta Maria ikastetxe talde txuriaren aurka neurtu zituen indarrak hilaren 4an eta garaipena erdietsi zuten, 63-15. Bost jardunaldi jokatu dituzte eta guztietan aurkaria gainditu dute talde urdin-beltzeko kideek.

Partida berdinduta hasi zen. Donostiako taldeak oztopo ugari jarri zizkion etxeko taldeari eta 13-7 amaitu zituzten lehen hamar minutuak. Bigarren laurdenean erasoan eta defentsan sendo egon zen taldea eta trantsizio azkarrekin esker errenta irekitzea lortu zuten; Aldapetak, ordea, puntu bakarra sartu zuen.

Atsedendialdiaren ostean, Ostadarrek entrenamenduan landutakoa jarri zuten martxan jokaldi ezberdinetan eta Endika Marrahi prestatzaileak ikusi zuten lan handia dagoela egiteko. Aurkariak ongi eutsi zieten etxeko erasoaldiei. Hala ere, azken 10 minutuen faltan 53-12koa zegoen markagailuan.

Azken laurdenean ere nagusi izan zen etxeko taldea saski azpian. Hala ere, urdin-beltzek falta ugari egin zituzten eta donostiarrek jaurtiketa librean bitartez gerturatzeko aukera izan zuten. Ez zuten asmatu eta ondorioz, azken



Sarrera bat egiten. TXINTXARRI

emaitza 63-15 izan zen. Marrahi prestatzaileak nabarmendu duenez, pozarren dago taldearekin: "Aurrendenboraldiko lana ikusten ari gara. Taldea oso momentu onean dago. Erroka baten zain gaude jokalariek zer egiteko gai diren ikusteko".

Hurrengo egunean, goizean, Ostadar urdina taldeak partida borrokatuan puntu batengatik garaitu zuen Easo Basket Artikutza (39-38) eta talde beltzak, ordea, Añorga KKEren aurka galdu zuen, 13-64. Datorren asteburuan atsedena izango dute hiru taldeek eta hilaren 17an lehiaketako bigarren faseari emango diote hasiera.

GBC ikusten

Arratsaldean, beste era batera gozatu zuten Ostadar SKTko Saski Eskolako kideek kirolaz; LEB Ligako Guuk Gipuzkoa Basket eta Hestia Menorcaren arteko partida ikusi zuten.

Eguzki Goxokis Goxuak, akatsetatik ikasteko neurketa

Lauburu Ibarra A taldearen aurka jokatu du kadete taldeak; 9-2 galdu dute Gorka Redondoren jokalariek

Txintxarri

Kadete mailako Eguzki Goxokis Goxua taldeak Lauburu Ibarra A mailako talde indartsuenaren aurka neurtu zituen indarrak urriaren 24an, Michelin kirolguneko pilotalekuan.

Ez zen partida erraza izan Gorka Redondok zuzentzen dituen jokalarientzat. Ibarra taldea nagusi izan zen; aurkako lau gol goiztiarrek ere emaitza baldintzatu zuten. "Bagenekien neurketa zaila izango zela, esperientzia

gehiagoko taldea da Lauburu Ibarra A; bigarren urteko kadeteak dira. Baina gure atean sartu genituen lehen bi golak eta beste biak alderatzeetan izan ziren. Ondorioz, jokalariek amore eman zuten", azaldu du Gorka Redondo prestatzaileak.

Egoerak gaintututa, entrenamenduetan landutakoa zelaira eramateko gai izan ez zirela onartu du. Horregatik partidako akatsak zuzentzeko lan egingo dute.

Asteburuko emaitza alde batera utzita, Redondo pozarren dago



Jokalaria baloia eramaten. TXINTXARRI

taldeak erakutsitako mailarekin: "Ez genuen uste sailkapenean hain goian egongo ginenik. Jo-

lastu ditugun neurketetatik bakarra galdu dugu. Talde indartsuen aurka jokatu dugu eta asteburu honetan ere erroka zaila izango dugu: Erain. Hori jokatu denboraldiko aurreikuspen bat egin dezakegu".

Bestalde, taldeko kide Markel Rodriguez eta Aratz Fuentes 16 urtez azpiko Euskadiko selezioarekin entrenatzen eta lagunartekoak jokatzen ari dira. Erkidego arteko Espainiako txapelketa prestatzen ari da taldea.



Kadete (ezkerrean) eta infantil B (eskuinean) taldeen partidetak irudiak. TXINTXARRI

Kadete eta infantil B, txanponaren bi aldeak

Ostadar Boleibola saileko taldeek denetariko emaitzak izan dituzte. Kadeteek Udarregi garaitu dute etxean; hasiberria den infantil B taldeak ezin izan du Aldapeta Mariarekin. Euskal Ligako II. mailako zein Gipuzkoako Ligako seniorrek ez dute euren txapelketetan neurketarik galdu

Txintxarri

Boleibol hitzordu bikoitza izan zen hilaren 4an, goizean, Maialen Chourraut kiroldegian. Zaletuek, aldi berean, Ostadar SKTko kadete eta infantil B taldeen neurketaz gozatu ahal izan zuten. Udarregi eta Aldapeta Maria

txuri urdin izan zituzten aurkari eta emaitza ezberdinak esku-ratu zituzten urdin-beltzek.

Kadeteek Udarregiren aurka jokatu zuten. Lehen setean usurbildarrek partida irabaziko zutela zirudien arren, etxeko taldea 3-1 gailendu zen.

Ostadarreko kideek bazekiten neurketa ez zela erraza izango. Udarregi aurreko bi norgehiagoketan garaipena erdietsi zuten. Talde urdin-beltzak, aldiz, atsedend jardunaldia izan zuen eta lehen setean nabaritu zen. Usurbildarrak konfiantzaz eta akatsik

Herriko errugbi jokalaria, txapelketatik txapelketara

Lander Zabala, Eneko Sanchez eta Alex Saleta Euskadiko zein Espainiako selekzioarekin jokoan ari dira

Txintxarri

Beltzak RTko harrobiko hiru jokalarik selekzio ezberdinetako deialdia jaso dute. Zarautz Beltzak RTko Lander Zabala eta Eneko Sanchez gazteak Euskadiko 16 urtez azpiko taldearekin lehiatu dira Erkidegoen arteko Espainiako txapelketan. Hilaren 4an, txapelketako lehen jardunaldia jokatu zen eta Euskal Erkidegoko konbinatuak Andaluziaren aurka neurtu zituen indarrak Bilbon. Euskadik 10-20 neurketa galdu zuen arren, herriarrek lan ederra egin zuten;



Zabala eta Sanchez. BELTZAK RT

Sanchezek taldeak lortutako bi entsegetako bat egin zuen.

Ordiziako kide den Alex Saleta herriar, aldiz, Espainiako

Castilla y Leon Iberians taldearekin lehiatuko da Europako Superkopako bigarren jardunaldian. Hitzordua hilaren 12an, 12:30ean da Valladoliden. Urri amaieran selekzioarekin lan egin ostean, Saletak Israelgo Tel Aviv Heat taldearen aurka jokatzeko deia jaso du.

Neurketa Michelinen

Bestalde, Euskal Ligako II. mailako Gesalaga Okelan Zarautz Beltzak taldea AVK Bera Bera Bren aurka lehiatuko da hilaren 11an, 17:30ean, Michelin kirolgunean.

Egoitz Esnaolaren jokalariek ligan astebeteko atsedendaldia izan dute. Denbora tarte horretan UBR-Nerbioiren aurkako porrota ahaztu -6-22 galdu zuten- eta hurrengo hitzorduak prestatzeko egin dute lan beltzek.

egin gabe nagusitu ziren lehen setean, 9-25.

Miriam Monje eta Iker Castañeda entrenatzaileen hainbat azalpenen ondoren, jokalariek jarraera aldatu eta neurketari itzulia emateko gai izan ziren hurrengo hiru setak irabaziz (25-22, 25-16 eta 25-21).

Prestatzaileen ustetan, "jokalarien animoak eta harmailetatik izan genuen babesa erabakigarriak izan ziren partida irabazteko".

Boleibolea hasiberri

Infantil B taldeak, aldiz, txanponaren beste aldea bizi izan zuen; Aldapeta Maria Txuri urdin taldea 0-3 (7-25, 7-25 eta 9-25) nagusitu zen.

Taldeko Eider Aldazabal eta Alex Acuriola prestatzaileek azaldu duten modura, taldeko partaide guztiek lehen urtea dute boleibolea jokatzen eta pausoz pauso kirolaren nondik norakoak ikasten ari dira.

Oraingoz infantil B taldeak hiru neurketa jokatu ditu eta hirurak galdu arren, jokalarien hobetzeko gogoak ikusi dituzte prestatzaileek. Pixkanaka pixkanaka hobekuntzak ikusi dituztela ere nabarmendu dute: "Lehenengo partidaren eta hirugarrenaren arteko desberdintasunak ikusi ondoren, ikusi dezakegu zertxobait hobetu dutela" Horregatik infantil B taldearen bi entrenatzaileak ziur gaude denboraldi amaieran aldaketa hori nabarmena izango

dela: "Horrek ikaragarri pozten gaitu".

Hori dela eta, entrenatzaileek partida bat irabaziko duten eguna irrikaz espero dute: "Ziur gaude egun hori ez dutela ahaztuko, jokalaria batek ez duelako inoiz ahazten irabazi duen lehen partida".

Gainerako emaitzak

Euskal Liga zein Gipuzkoako Ligako kideek ere euren hitzorduei aurre egin zizkieten; bina garaipen zein porrot izan zituzten Ostadarreko ordezkariak.

Navarvoley Aren aurka neurtu zituen indarrak etxean Euskal Ligako I. mailako taldeak. Nafarrak hasieratik nagusi izan ziren eta 0-3 (15-25, 18-25 eta 18-25) gailendu ziren.

II. mailako taldeak garaipen berria eskuratu zuen Abanto-Zierbenan. Neurketa borrokatua izan zen eta lehen seta galdu arren, Gallartaren ahotsa 1-3 (25-23, 23-25, 23-25 eta 22-25) gaitu zuen talde urdin-beltzak. Asier Acuriolaren taldeak ez du oraingoz neurketarik galdu denboraldi honetan.

Gipuzkoako txapelketan ere batean kale bestean bale egin zuen Ostadarrek. Senior taldeak 0-3 (18-25, 20-25, 9-25) irabazi zion Hernaniri eta jubentilek ezin izan zuten Harresi 1 gaitu, 3-0 (25-7, 25-14 eta 25-21). Seniorrak sailkapeneko buru dira Harresi lekin batera. Bestalde, infantil A taldeak atsedend izan zuen jardunaldi horretan.

LOKEko judokak, txapelketa ezberdinetako podiumetan

Euskadiko txapelketa eta infantil mailako taldekako Gipuzkoako txapelketako lehen postuetan sailkatu dira

Txintxarri

LOKEko judoek bi hitzordu garrantzitsu lehiatu zituzten hilabeteko lehen asteburuan eta dominak jantzi zituzten. Senior mailako Asier Sagasti eta Haritz Urdangarinek Euskadiko txapelketari egin zioten aurre eta euren mailako zilarrezko eta brontzezko domina jantzi zituzten, hurrenez hurren.

Infantil mailako gaztetxoek taldekako Gipuzkoako txapelketa izan zuten. Nesken taldea -Ariane, Isabella, Maria, Iraia, Siena eta Anne- podiumeko hi-



Infantil taldea, garaikurrekin. LOKE JUDO

rugarren mailara igo zen eta mutilak finalerdietako atarian geratu ziren.

KOMIKIA



Urte askotarako!

Zorion itzazu urteak bete, ezkondu berri edo urteurrena bete duten lagunak eta senitartekoak, baita jaioberriak ere

Internet

- txintxarri.eus/zorionagurrak.
- Erabiltzailearekin sartu/ Erabiltzaileak ez baduzu izena eman.
- Bidali zorion agurra formularioa betez.
- Zorion agurra formularioan zehaztutako datan argitaratuko da webgunean eta ostiralean paperean.

Posta elektronikoa

- Mezua bidali txintxarri@ttakun.eus helbidera, eta idatzi: izen-abizenak, urtebetetze eguna, urteurrenaren data edo ezkontzaren data eta nahi duzun testua.

OSTEGUNEKO 16:00AK ARTE JASOKO DITUGU



Jaio da!

Deitu 943-37 14 48 telefonora, bidali haurren izen-abizenak eta jaiotze data txintxarri@ttakun.eus helbide elektronikora edo 688 68 35 10 WhatsApp zenbakira.

SUDOKUA

8		2			6			7
3		7					8	5
6		4	8					
		6	3	8		4		
4				1			7	6
5					4		2	
	6	3		5			9	
	4		9					8
				4	3	1		2

Sudoku10.net

GUARDIAKO FARMAZIAK

OSTIRALA, 10	GANDARIAS-URIBE
LARUNBATA, 11	DE MIGUEL
IGANDEA, 12	DE MIGUEL
ASTELEHENA, 13	DE ORUE
ASTEARTEA, 14	DE MIGUEL
ASTEAZKENA, 15	LASA
OSTEGUNA, 16	GIL

Eguneko Farmaziak: 09:00-22:00
 DE ORUE: Jaizkibel plaza 2/ 943-36 26 52
 ACHA-ORBEA: Hipodromo et. 6/ 943-36 35 49
 DE MIGUEL: Kale Nagusia 32/ 943-37 11 51
 LASA: Kale Nagusia 42 atzea/ 943-36 17 74
 GIL: Kale Nagusia 24/ 943-36 07 08
 URBISTONDO: San Frantzisko 1/ 943-36 65 67
 GANDARIAS-URIBE: I.de Loyola 9/ 943-01 95 21

GAUEKO FARMAZIA 22:00-09:00

K. Aizpuru Odriozola: Latxumbe Berri 11, Hernani. 943-33 60 77

'URTE OSOKO GUARDIAK'

Informazio gehiago www.cofgipuzkoa.com webgunean eskuragarri.

TELEFONOAK

UDALAREN TELEFONOAK

- ERREGISTROA: 943-37 16 29
- EUSKARAKO ZERBITZUA: 943-37 61 84
- KIROLDEGIA: 943-37 61 82
- MANUEL LEKUONA
- KULTUR ETXEA: 943-37 61 81
- GIZARTE ZERBITZUAK: 943-37 61 79
- KIUB: 943-36 16 05
- UDAL EUSKALTEGIA: 943-36 16 21
- MUNTTERI AEK: 607 62 52 33

LARRIALDI TELEFONOAK

- OSASUN ZENTROA: 943-00 79 60
- DYA: 943-46 46 22
- GURUTZE GORRIA: 943-36 39 53
- UDALTZAINAK: 943-36 24 42
- ERTZAINAK: 943-53 88 40
- SOS DEIAK: 112

OHARRAK

Zatoz txistua jotzera

Txistularia bazara, duzun maila duzula ere, zatoz gurekin entsaiatzera. Adin guztietako lagunak topatuko dituzu eta giro ezin hobea. Besoak zabalik hartuko zaitugu. REMen (Oriarte Landaberri eraikinean) bil-tzen gara asteartero 19:30etik aurrera.

ESKUTITZA

Ipar martxako lasterketetako arauak

ROSA ORMAZABAL CAMARERO-NUÑEZ OSTADAR IPAR MARTXAKO ARDURADUNA

Ipar martxako lasterketak direla eta, zenbait azalpen edo zehaztapen egin nahi ditugu. Ostadar krosa eta San Silvestre krosa, herrikoiak izan arren, gutxieneko arau hauek bete beharko ditu:

- Makilek Ipar martxakoak izan behar dute.
- Makilen mugimenduak diagonalean izan behar du, une oro, eta aurreko oinaren orpoak eta atzekoaren puntak egiten duten hirukiaren tartean sartu behar dira.

Aurreko baldintza horiek bete gabe, ezin da ez irabazle, ezta lehenengo lau postuetan egon, hau da, ezin da podiuma egin.

Horretarako, Ostadar Ipar martxako arduradun batek, lasterketa hasi baino lehen, beste kirol bateko makilekin lehiatzera doala ikusten badu, hau uztera gonbidatuko du.

Horrerarako, helmugatik gertu Ostadar Ipar martxako arduradun bat egongo da epaile lanetan. Laburbilduz, aipatutako arauak betetzen ez dituzten ipar martxalariak deskalifikatu egingo dira, eta lasterketatik kanpo geratuko dira.

Eskutitzak argitaratu nahi dituzten herritarrek hiru modu dituzte testua bidaltzeko: bulegora etotzea (Geltoki kalea 4, behe), txintxarri@ttakun.eus helbide elektronikora edo WhatsApp bidez, 688 68 35 10 telefonora bidaltzea. Idatzia orri hauetan publikatua izan dadin, izen abizenak zeintzuk diren zehaztu beharko dute.

Nire kexa Kutzari

G.A.

Kaixo, 74 urte ditut. Betidanik Kutzako bezeroa izan naiz. Oso haserre nago. Inoizka leihatilara joan beharra izaten dut, eta kriston itxaron beharra izaten dut / izaten dugu (badirudi limosna eskatzen gaudela, errenkada luzea eginik) amorrak egineraziz, leihatilan langile bakarra. Lasartek 18.800 bizi lagun izanik, erdiak 9.400 bizi lagun 70 urtetik gorakoak izanik. ADARRA EZ JO, NAHIKOA DA.

AZOKA TXIKIA

ETXEBIZITZA

SALDU

Denda saltzen dut. Okendo plazan dago, Geltoki kalea 3. 135.000 euro. Ez da alokatzen. Interesa duenak dei dezala 658 089 380 zenbakira.

LANA

ESKAINZA

Jornada erdian etxea garbitu eta sukaldatzeko emakume eskaldun baten bila gabiltza. Kotxea izatea beharrezkoa da. Mugikorra: 644 11 61 22.

ESKARIA

Haurrak zaintzeko lan bila nabil. Umeekin esperientzia daukat. Harremanetarako telefonoa: 695 18 41 79.

Lan bila nabil interna edo orduka. Haurrak, nahiz adineko pertsonak zaindu edota ebeko lanak egingo nituzke. Erietxeetan zaintza lanak ere egingo nituzke. Harremanetarako zenbakia: 666 31 79 60.

Lan bila nabil interna edo orduka. Haurrak, nahiz adineko pertsonak zaindu edota ebeko lanak egingo nituzke. Erietxeetan zaintza lanak ere egingo nituzke. Harremanetarako zenbakia: 652 13 89 68.

Gaztea 24 urte, edozein lan egiteko eskaintzen naiz (zerbitzari, garbiketa...) FP-2 mekanizatu egina dut. Zubietan bizi naiz. Harremanetarako zenbakia, 602 08 25 83.

Ebeko lanak egiteko edo pertsonak lagundu eta zaintzeko eskaintzen naiz. Orduka. Zubietan bizi naiz. Euskaraz ez dakit. 44 urte eta eskarmentua dut. Harremanetarako zenbakia, 602 08 25 83.

BESTELAKOAK

SALEROSKETA

Haritz egurra saltzen dugu, tximinia edota ekonomiketarako. Eskatu ostean etxera eramateko zerbitzua dugu. Harremanetarako zenbakia, 667 23 23 00.

GALDUTAKO GAUZAK

Urrezko belarritakoa aurkitu zen hilaren 6an San Francisco kalean eta udaltzainetara eramane dute.

AZOKA TXIKIA

Atal honetako iragarkiak doan dira herritarrentzat (lau astez argitaratuko dira). Profesionalentzat, aldiz, 4 asterako kontratazioak 12 € + bez izango da prezioa.

Iragarkia jarri nahi baduzu jar zaitez gurekin harremanetan

txintxarri@ttakun.eus
943-37 14 48
688 68 35 10

ESKELA


ESKELAK JARTZEKO

TEL: 943-37 14 48
edo TXINTXARRI erredakzioan

► Eskela Txintxarri paperean: **80 €**
► Eskela Txintxarri paperean + Txintxarri.eus-en: **90 €**

Txintxarri: doan eta euskaraz
Lasarte-Oriako etxe guztietan **943-37 14 48**

MANTTANGORRI HIRIBUSA



Lanegunak

Antxisu	Zabaleta	Atsobakar	Kotxerak
08:00	08:10	08:15	08:20
08:40	08:50	08:55	09:00
10:30	10:40	10:45	10:50
11:00	11:10	11:15	11:20
11:30	11:40	11:45	11:50
12:05	12:15	12:20	12:25
12:30	12:40	12:45	12:50
13:00	13:10	13:15	13:20
13:30	13:40	13:45	13:50
16:30	16:40	16:45	16:50
17:00	17:10	17:15	17:20
19:30	19:40	19:45	19:50
20:00	20:10	20:15	20:20

txintxarri

Etxe ondoan, kalean, auzoan... gertutasunez eta euskaraz



www.txintxarri.eus

txintxarri

WWW.TXINTXARRI.EUS

Argitaratzailea

Ttakun Kultur Elkartea
Geltoki kalea 4 (behea)
20160 Lasarte-Oria
G-20407557

Administratia

Nerea Garziarena.

Erredakzioa

Nerea Eizagirre, Iñigo Gonzalez, Maddi Zaldúa eta Maitane Aldanondo.

Publizitatea

Irati Zatarain.

Laguntzaileak

Gorka Lasa, Asier Odriozola, Gorka Alvarez, Jexux Artetxe, Maitane Rebe, Julen Basterra, Lierni Rekondo eta Aizpea Amas.

Banatzzaileak:

Nikola Iraola, Xuban Urdalleta, Egoitz Epelde, Endika Merchan, Gorka Morales, Sergio Hernandez, Ander Hazas eta Iñigo Garcia.

Informatika zerbitzuak

IZT Informatika.

Publizitatea

Tel.: 943-37 14 48 (106)
WhatsApp: 646 82 44 66
publizitatea@ttakun.eus

Egoitza nagusia

Geltoki kalea 4
Tel.: 943-37 14 48 (104)
WhatsApp: 688 68 35 10
txintxarri@ttakun.eus

Inprimategia

Zeroa Multimedia, S.A.
Lege Gordailua: SS-513/93
ISSN: 1134-0053
Tirada: 8.300 ale

BABESLEA



LASARTE-ORIA
UDALA

DIRUZ LAGUNDUTAKO ARGITALPENA:



Gipuzkoako Foru Aldundia

AGENDA

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTEAZKEN ARRATSALDEA BAINO LEHEN.

Tel.: 943-37 14 48 / txintxarri@ttakun.eus

OSTIRALA 10

LASARTE-ORIA Kontzertua

Galiziatik etorritako Bush Doctors Band reggae taldeak kontzertua emango du. Sarrera, doan. *Jalgi kafe antzokia, 20:00etan.*

LASARTE-ORIA Kontzertua

Sasibil Lirika Elkartekak *Una noche de teatro en la ópera* izeneko ikuskizunaren emanaldia egingo du. Sarrerek 6 euro balio dute. *Kultur etxea, 20:00etan.*

LARUNBATA 11

LASARTE-ORIA Ospakizuna

Euskal Jaia antolatu dute Ttakun Kultur Elkartek eta Lasarte-Oriako Udaleko Euskara Zerbitzuak, herriko zenbait eragilerekin elkarlanean. Hauxe izango da egitaraua: **10:15ean**, diana egingo du herriko txistulari taldeak, Okendo plazatik abiatuta. **10:15etik 13:00etara**, herriko ekoizleek euren produktuak erakutsiko dituzte Okendoko azokan. **12:00etan**, Plaza Dantza egitasmoko lagunek saioa egingo dute, Okendon. **13:00etan**, kalejiran aterako dira Ttiriki Ttaraka eskolako trikitilariak, Okendotik. **14:00etan**, herri bazkaria egingo dute, Okendon. **17:00etan**, jantzi tradizionaleri buruzko saio bat aurrera eramango dute, Jalgi kafe antzokian. **17:30ean**, bakarriketa saioa egingo du Bea Egizabal clownak, Jalgin. **18:30ean**, Oaintxe in deu! txarangak girotutako poteoa hasiko da, Jalgin. Ondoren, erdiguneari barrera ibiliko dira. *Okendo plaza eta inguruak, 10:15etik aurrera.*

LASARTE-ORIA Solasaldia

Sorgin Jaiak-ek *Iragana, oraina eta geroa: nondik gatoz eta nora goaz?* ekimena antolatu du, herritar gazteak elkar ezagutu, pentsatu, hausnartu eta sareak sortzeko. *Xirimiri elkarteak, 10:00etan.*



LASARTE-ORIA Ospakizuna

Euskaltzaleak bildu eta saretea helburu duen jarduera aurrera eramango dute Ttakun Kultur Elkartek eta herriko zenbait eragilek, udalaren laguntzarekin: Euskal Jaia. Jarduera ugari prestatu dituzte. *Bihar, hilak 11, larunbatarekin, Okendo plazan eta Jalgi kafe antzokian.*

LASARTE-ORIA Antzerkia

Anbotoko Mari antzezlanaren emanaldia egingo du Logela Multimedia taldeak. Haurrei zuzendutako ikuskizuna da. Sarrerek 4 euro balio dute. *Kultur etxea, 17:00etan.*

IGANDEA 12

LASARTE-ORIA Zinema

El osito Boom filma emango dute. Sarrerek 4 euro balio dute. *Kultur etxea, 17:00etan.*

LASARTE-ORIA Zinema

Sound of freedom filma emango dute. Sarrerek 6 euro balio dute. *Kultur etxea, 19:30ean.*

OSTIRALA 17

LASARTE-ORIA Erakusketa

Zurmailu zurlanketa taldeko ikasleek haien lanen erakusketa irekiko dute. Astegunetan 18:00etatik 20:00etara ikusi ahalko dute herritarrek, eta, asteburuetan, 12:00etatik 14:00etara. Sarrera, doan. *Antonio Mercero aretoa, 18:00etan.*

LASARTE-ORIA Kontzertua

Zaria Koru Eskolak *Come again* izeneko ikuskizuna emango du,

Danok Kide elkarteak eta udalak antolatutako XVIII. Musika Topaketen barruan. Sarrera, doan. *Brigitarren komentua, 19:45ean.*

LASARTE-ORIA Zinema

Okendo Zinema Taldeak *O Corno* filma emango du. Sarrerek 6 euro balio dute. *Kultur etxea, 20:00etan.*

LARUNBATA 18

LASARTE-ORIA Ospakizuna

Virgen de Guadalupe Extremadura Etxeko lagunek VII. Txerri Hiltzearen Jaia ospatuko dute Adarra kaleko egoitzan, jarduera hauek aurrera eramanda: **09:30ean**, txerria zatitzea. **10:30ean**, hamaiketako eta txorizoak nahiz odolkiak egiten ikasteko tailerra. **14:30ean**, herri bazkaria: txitxirioak sakramentuekin eta meloia. **16:00etan**, karaokea. **21:00etan**, afari herrikoia: haragi parrillada, entsalada eta tarta. *Extremadura Etxea, 09:30ean.*

LASARTE-ORIA Literatura

Literatur lehiaketetako sariak banatuko dituzte udal ordezkariak. Sarrera, doan. *Kultur etxeko hitzaldi aretoa, 12:00etan.*

ZINEMA



LABURPENEA

'Sound of freedom'

Zuzendaria: Alejandro Monteverde. **Gidoia:** Alejandro Monteverde, Rod Barr. **Argazkia:** Gorka Gomez Andreu. **Ekoizleak:** Santa Fe Films. **Herrialdea:** Amerikako Estatu Batuak (2023). **Iraupena:** 131 minutu. **Generoa:** Thrillerra, drama. **Aktoreak:** Jim Caviezel, Bill Camp, Mira Sorvino.

Askatasunaren doinuaren bila

Tim Ballard (Jim Caviezel) agenteak lana uztea erabakiko du, Amerikako Estatu Batuetako Gobernuaren Segurtasun Nazionaleko departamentuan duen postua, hain justu ere. Bere bizitza eta egunerokoa erabat aldatuko dira, Latinoamerikara joan eta umeen trafiko sexualaren aurka borrokatzen hasiko baita, aktibista gisa, ehunka

adingabe bertatik salbatzeko helburua jarrita bere buruari.

Alejandro Monteverde zuzendari mexikarrak ondutako *Sound of freedom* pelikula egiako istorio batean oinarrituta dago, Ballardenean berarenean hain zuzen. Operation Underground Railroad izeneko erakundea sortu zuen agente ohi horrek, sexu esklabutzaren aurka egiteko.

LASARTE-ORIA Jaialdia

Zero Sette Akordeoi Orkestrak XX. Akordeoi Jaialdia aurrera eramango du. Sarrerek 6 euro balio dute. *Kultur etxea, 19:00etan.*

IGANDEA 19

LASARTE-ORIA Ospakizuna

Virgen de Guadalupe Extremadura Etxeko lagunek VII. Txerri Hiltzearen Jaia amaituko dute: **11:00etan**, hamaiketako: perrunillak, salda eta pattarra. **14:00etan**, herri bazkaria: urdaiazpiko errea eta tarta. *Extremadura Etxea, 11:00etan.*

LASARTE-ORIA Zinema

La Patrulla Canina: la superpelícula filma proiektatuko dute,

haurrentzat. Sarrerek 4 euro balio dute.

Kultur etxea, 17:00etan.

LASARTE-ORIA Zinema

O Corno filma proiektatuko dute, helduentzat. Sarrerek 6 euro balio dute. *Kultur etxea, 19:30ean.*

ASTEARTEA 21

LASARTE-ORIA Kontzertua

Udal Musika Eskolako ikasleek Santa Zezilia eguneko kontzertua emango dute, ikasturte hasieratik lantzen ari direna erakusteko. Sarrera doakoa izango da. Ordubate iraungo duela aurreikusiko dute antolatzaileek. *Kultur etxea, 19:00etan.*

BATU DITZAGUN
GURE AHOTSAK

TEKNOLOGIARI
EUSKARAZ
IRAKASTEKO

«Makinei gizakiok nola hitz egiten dugun irakasteko ekimen bat da, gailu ezberdinekin ahots bidez komunikatu ahal izateko».

Ahots grabaketa sorta erraldoia sortu nahi da milaka ahots lortzea eta euskarazko ahotsen datu basea ahalik eta gehien handitzea.

AUZOLAN DIGITALA

Adimen artifizialak euskaraz egin dezan Erronka berri bat dugu: makinek gure hizkuntza ulertu eta hitz egin dezaten, lehenago irakatsi egin behar diegu.

Euskal hiztunen laguntza beharrezkoa da

GAITU.EUS

-en sar zaitez



EUSKAL JAIA '23
AZAROAK 11, LASARTE-ORIA

- 10:15 | **DIANA LASARTE-ORIA BARRENA HERRIKO TRIKITILARIEKIN.**
- 10:15 | **EUSKAL AZOKA HERRIKO ARTISAUEN PRODUKTUAK ETA**
13:00 | **TTAKUNEN PROGRAMEN ESKAINTZA. OKENDO PLAZAN.**
- 12:00 | **PLAZA DANTZA MUXIKOAK/EUSKAL DANTZAK PLAZA DANTZAKOEN ESKUTIK.**
- 13:00 | **TTIRRIKI TTARRAKAKO TRIKITILARIEKIN KALEJIRA OKENDOTIK IRTENDA.**
- 14:00 | **HERRI BAZKARIA JATEKOA NORBERAK ERAMANDA ETA EDARIA BERTAN**
ESKURAGARRI. OKENDO PLAZAN*. Mahaiak, aukiak, edalontziak, platerak, kubiertoak eta serbilletak jarriko ditugu eskuragarri. 3€ ordaindu beharko dira eta edaria bertan eskuragarri egongo da (sagardoa, ardoa, ura).
- 17:00 | **EUSKAL JANTZI TRADIZIONALAK JALGI KAFE ANTZOKIAN.**
- 17:30 | **BEA EGIZABAL UMORISTAREN BAKARRIZKETA. JALGI KAFE ANTZOKIAN**
- 18:30 | **POTEOA JALGI KAFE ANTZOKITIK OAINTXE IN DEU TXARANGAK GIROTUTA**
ibilbidea (Jalgi, Ilargi, Arkupe, Buenetxea eta Jalgi)



**ZATOZ
BASERRITAR
JANTZITA!**

*Eguraldiaren arabera Okendon edo Ttakunenean

